



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urtarrilaren 22a

4. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako 2001eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

#### C SAILA:

##### **Planak, komunikazioak eta programak:**

—Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendaria, 2002-2009. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsia (27. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa 2003ko urtarrilaren 17an (30. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2002ko abenduaren 31n (31. or.).

—Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren, hautetsien eta haren zerbitzuko behin-behineko langileen lan-sari (33. or.).

—Foru parlamentariak eta Parlamentuko taldeek 2003ko ekitaldian jasoko dituzten zenbatekoak (33. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako 2001eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarreko Erregelamenduko 154 artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako 2001eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzea.

Iruñean, 2002ko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Nafarroako 2001eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina**

### **ÍNDICE**

- I. Helburua (2. or.).
  - II. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoa (3. or.).
  - III. Lanaren norainokoa eta mugak (5. or.).
  - IV. Iritzia (7. or.).
  - V. Gomendio orokorrak (9. or.).
  - 1. **eranskina.** Nafarroako Gobernuaren oroit-idazkiaren informazio osagarria eta lan iruzkin berariazkoak (12. or.).
  - 2. **eranskina.** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2001eko kontuak (18. or.).
  - 3. **eranskina.** Foru Komunitateko fundazio publikoen sektorea (20. or.).
- Nafarroako Gobernuak eginiko eginkizun batzuei atxikiriko baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruzko ondorio batekin osatuko da iritzi hori, txosteneko III.2 epigrafean adierazitako mugak kontuan izanik.
- Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganbarak emandako erantzuna. (26. or.).

### **HELBURUA**

Indarreko legeriarekin bat etorrituz, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2002ko irailaren 16an hartutako erabakia betez, 2001eko Nafarroako 2001eko kontu orokorrak fiskalizatu ditugu, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea 2001eko gastu eta dirusarreraren aurrekontu orokorren betetzeari buruzko egoera-orriak behar bezala agertzen duen aldi horretan izandako jarduera.

- Foru Ogasunaren 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoera arrazoizkoa ote den, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate- arau eta printzipioei jarraituz, zeinak aurreko ekitaldikoekiko uniformeak baitira.

- Nafarroako Gobernuaren oroit-idazkian agertzen diren datu eta iruzkinak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren.

- Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ekonomi eta finantza jarduera legezkotasunaren printzipioaren menpe ote dagoen.

- Foru Ogasunaren 2001eko abenduaren 31n duen finantza-egoera arrazoizkoa ote den.

- Nafarroako kontu orokorren aurreko fiskalizazio txostenetan Kontuen Ganbarak emandako gomendioen betetze maila.


Nafarroako Gobernuak eginiko eginkizun batzuei atxikiriko baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruzko ondorio batekin osatuko da iritzi hori, txosteneko III.2 epigrafean adierazitako mugak kontuan izanik.

**II. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK.**

osaketa 2001eko ekitaldian, Nafarroako kontu orokorren aurkezpenari dagokionez, honako taula honetan ageri da:

**II.1. OSAKETA**

Foru Komunitateko administrazio publikoaren



Hau aztertzean, ondoko hauek nabarmenduko ditugu:

- Foru Komunitateko administrazio orokorra Nafarroako Gobernuako 10 departamentuek osatzen dute.

- Erakunde administrazioa, honako hauek osatua:

a) Erakunde autonomo hauek (aurrerantzean, EEAA):

1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)

3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI)

4. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI)

5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI).

6. Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (EVENA).

7. Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).

8. Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ).

9. Nafarroako Zerga Ogasuna (NZO).

b) Enpresak publikoak, zeinetan Nafarroako Gobernuak ehuneko 50eko edo gehiagoko kapital-jabetzako ehuneko baitauka, zuzenean edo zeharka. 2001ean, sektore hori 28 enpresa publikok osaturik zegoen; xehetasunak eta kapitaleko partaidetza txosten honi erantsirik dagoen oroitidazkian ageri dira.

c) Foru Komunitateko administrazioak 13 fundazioetan hartzen du parte, Nafarroako Gobernuak igorritako informazioaren arabera. Halere, soilik horietako seitan da nagusi, bai zuzendaritza organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzeko ahalmena duelako bai fundazioaren kapitalean haren ekarpena handiena delako. Fundazio horien urteko kontuak ez dira Nafarroako kontu orokorretan sartzen, Ogasun publikoari buruzko

Foru Legeak ez baitu aukera hori aurreikusten oraindik.

Txosten honen 3. eranskinean zehazturik daude fundazioen zerrenda eta 2001eko ekitaldian izandako jardueraren datu esanguratsuenak.

d) Zuzenbide publikoko enteak; hain zuzen ere, honako hauek:

1. Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

3. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua.

Ogasun publikoari buruzko Foru Legean aurreikusten ez bada ere zuzenbide publikoko ente horiek sartzea Nafarroako kontu orokorretan, oroit-idazkian sarturik daude Partzuergoarenak. Unibertsitate publikoarenei dagokienez, txosten honen eranskin gisa sartu ditugu; Ikus-entzunezkoen Kontseiluaz, berriz, esan behar da 2001ean sortu baina 2002ko ekitaldira arte ez zela jardunean hasi.

- Administrazio korporatiboa, besteak beste Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera kide duena; horien urteko kontuan eranskin gisa sartu dira Nafarroako orokorretan.

- Kontsulta administrazioa, Nafarroako Kontseilua, zehazki; horren aurrekontuei buruzko informazioa Nafarroako Gobernuaren gastuen aurrekontuaren likidazioan sartzen da.

Aurreko entitateez gain, eta Nafarroako kontu orokorren edukiaren ikuspuntutik, erakunde parlamentarioei dagozkienak ere sarturik daude Parlamentua, Arartekoa eta Kontuen Ganbara.

## II.2. GASTU ETA DIRUSARREREN KOPURUAK

Aurreko sailkapenarekin bat, Foru Komunitateko administrazioiko kide diren entitateen gastu eta dirusarrerren kopuruak \*aurrekontukoak edo ekonomikoak, entitatearen izaeraren arabera\* hauek dira 2001eko ekitaldirako (zenbatekoa pezetatan eta eurotan, milioika):

## Nafarroako kontu orokorrak

	Gastuak (pezetak, milioitan)	Gastuak (euroak, milioitan)	Dirusarrerak pezetak, milioitan)	Dirusarrerak (euroak, milioitan)
Administrazio orokorra eta EA	391.879	2.355,24	382.999	2.301,87
Enpresa publikoak	25.689	154,39	28.805	173,12
Fundazio publikoak	86	0,52	381	2,29
Ente publikoak	10.644	63,97	11.455	68,85
Administrazio korporatiboa	879	5,28	899	5,40
Kontsulta administrazioa	30	0,18	-	-
Erakunde parlamentarioak	1.770	10,64	2.215	13,31

**III. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK**

## III.1. LANAREN NORAINOKOA

Nafarroako Gobernuak argitaraturiko Nafarroako 2000ko kontu orokorrek Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek ekitaldi horretan betetako jardueraren adierazgarri diren finantza eta aurrekontu orrien berri ematen dute, xehetasun maila desberdinekin. Era berean, honako hauen kontu orokorrak ere barne hartzen dituzte kasu batzuetan bat eginik eta beste batzuetan eranskin gisa.

- Nafarroako Parlamentua.
- Arartekoa
- Kontuen Ganbara.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa.
- Enpresa publikoak, kasuan kasuko auditoretza txostenarekin batera.
- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

Oroit-idazkiaren kasuan, fiskalizazio txosten honetan sarturik baitago, eduki nagusi hauek nabarmenduko ditugu, labur:

1. Oroit-idazki horretako sarrerak hartzen ditu Foru Administrazioaren antolaketa, kontuen aurkezpenaren oinarriak eta horiek aurreko ekitaldiarekin alderatzearen ondoriozko iruzkin bat.

2. Honako dokumentu hauek:

- Gobernuaren aurrekontuaren likidazioa 2001eko ekitaldirako, sailkapen ezberdinetan: ekonomikoa, organikoa, programakakoa eta funtzionala.

- Urteko finantza egoera bateratuak: egoeraren balantzea, ekonomia eta ondare emaitzen kontua eta jatorriaren egoera-orria eta funtsen aplikazioa.

- Finantzei eta ondareari buruzko adierazleen azterketa.

- Abalei buruzko informazioa.

- Enpresa publikoen kontuei buruzko laburpen bat.

- Geroko ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera.

- 2001eko ekitaldiko aurrekontu-aldaketak.

3. Oroit-idazkia bera, 2001eko aurrekontuen betetzeari buruzko alderdi garrantzitsuenak eta 1998tik 2001era bitarte gastuek eta dirusarrek izandako bilakaera ere barne dituela.

2001eko ekitaldian izandako gertaera aipagarria da ekonomia eta kontabilitaterako SGEF kudeaketa sistemaren ordez GE'21 ezarri izana. Aldaketa horren helburua da Nafarroako Gobernuaren kudeaketa modernizatzea egungo beharretara eta neurrira egokitzeko eta sektore publikoaren kontabilitate plan orokorrera ere.

Gure lanaren norainokoaren jomuga izan da, batik bat, 2001eko gastuen eta dirusareren aurrekontuaren likidazioa aztertu eta zentsuratzea, 2001eko abenduaren 31ko egoera balantzea berrikustea eta oroit-idazkian aurkeztutako datuen gaineko iruzkinak eta barne kohesioa berraztertzea, hori guztia Nafarroako Gobernuari eta haren erakunde autonomoei dagokienez.

Kontu orokorra osatzen duten gainerako entitateei dagokienez, hauxe adierazi behar dugu:

- Ganbera honek erakunde parlamentario guztiak eta kontsulta administrazioa berrikusi ditu, eta lan <sup>(1)</sup> horien emaitzak txosten honi erantsi dizkio.

- Enpresa publikoek <sup>(2)</sup> eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak kanpoko profesionalek eginiko auditoretza aurkeztu dute. Esparru horretan gure jarduketaren xedea kasuan kasuko txostena berrikustea izan da, haren ondorio nagusia atera eta oroit-idazkian ageri denarekin alderatzea.

- Gainerako entitateen kasuan haien kontu orokorren azterketa orokorra egin da.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpoko Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoretzako printzipio eta arauak" aplikatu dira.

Finantza eta aurrekontu egoera-orriak berrikustean aurreikusitako helburuak erdiesteko behar diren auditoretza frogak eta prozedurak aplikatu dira, inguruabarren arabera; prozedura horien artean, laginen teknika edo aurrekontuko-kontusail edo eragiketa zehatz hautatuen berrikustekoa erabili da.

Kontuan hartu dira, halaber, honako txosten berariazkoak bakoitza bere aldetik argitaratuak Nafarroako Kontuen Ganbarak eginak.

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kudeaketa.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen hornigaiak

- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren erosketak eta inbertsioak.

- Nafarroako Gobernuak higiezinak errentan hartzeak dakarren gastua.

- Foruzaingoaren kuartela eraikitzea Tuteran.

- Nafarroako administrazio publikoetako mon-tepioetan afiliatuta dauden funtzionarioek duten eskubide pasiboen araubideari buruzko azterlan aktuarialak.

Era berean, Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuak egindako zenbait txosten erabili dira bereziki, ondoko kontrolaren eta auditoretza ataleko txostenak, eta Administrazio Kontrataziorako

Batzordearen eta Herrilan Departamentuaren oroit-idazkiak.

Lan berezi bat egin da, ekonomia eta kontabilitate kudeaketarako sistemaren informazioa sistema berrira behar bezala aldatu den egiaztatzeko, bai eta sistema berrian finantza-egoera orriak egiteko ere.

Foru Komunitateko administrazioari atxikitako fundazio publikoak ezagutzearren honako informazio hau eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuko departamentu guztiei:

- Departamentu bakoitzaren partaidetza, zuzeneko edo enpresa publikoen edo berari atxikitako beste ente batzuen bidezkoa, duten fundazioen zerrenda.

- Fundazio horietako bakoitzaren kasuan honako dokumentazio hau eskatzen zen:

- a) Fundazioaren zuzkidura edo kapitalaren zenbatekoa eta osaketa.

- b) Estatutu indardunak.

- c) 2001eko ekitaldiko urteko kontuak.

Esparru operatiboan, eta ikusirik nolako mugak zeuden -ikus III.2 idatz-zatia-, gure lanaren jomuga izan da Gobernuan aplikatzen den aurrekontu antolaketa, programakakoa, orokorrean aztertu eta oroit-idazkian ageri den informazioarekin alderatzea. Orobat, sare publikoko ospitaleen jardueraren azterketa egin da, oroit-idazkian emandako datuekin bat.

Txostena bost ataletan dago egituraturik, administrazioaren antolaketa eta barne kontrola hobetzeko komenigarritzat jotzen diren gomendio orokorren, iritziaren, helburuen eta norainokoaren adierazgarri. Atal horiek Nafarroako Gobernuak emandako informazioaren osagarri diren beste hiru eranskin dituzte. Halaber, txostenak erantsirik du Nafarroako Gobernuak prestatutako oroit-idazkia.

Azterketa-lana 2002ko apiriletik irailera bitarte egin zuten auditoretzako lau teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, praktiketan ari zen ikasle baten laguntzarekin aldi batean, eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

(1) Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak.

(2) Denak, Sodexna, SL ezik. Elkarte hau ez dago jarduean.

Eskertu nahi diegu Nafarroako Gobernuak lan-gileei lan hau egiteko azaldu duten lankidetasuna, eta bereziki Ekonomia eta Ogasun Departamentuko langileei.

### III.2. MUGAK.

Gure lanean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- 2001ean ekonomia eta kontabilitateko kudeaketarako GE'21 sistema berria ezarri izanak arriskuak eta zalantzak dakartza ezarpen horren azken emaitzen eta kontabilitate eta aurrekontuen inguruko informazioan izanen duen eraginaren inguruan, bereziki sistemaren erabileraren lehen-dabiziko urtean.

- Nafarroako Gobernuak baliabide publikoen kudeaketan lortutako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruzko iritzia emateko xedea mugaturik dago, aurrekontu programa guztietan ez baitago informazio bateratu eta koherenterik kudeaketa mailaz, eskura dagoen informazioaz, xedeen kalitateaz eta proposaturiko adierazleez, horien jarraipenaz eta desbideraketan azterketaz, eta horrek galarazten digu afera honen gaineko iritzi orokorra ematea.

### IV. IRITZIA.

Egindako lanaren norainokoaren arabera, hauek aztertu ditugu: egoera-balantzea, ekonomia eta ondareko emaitza-kontua, aurrekontuaren likidazioa eta 2001eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren oroit-idazkia. Txosten honi eranskin gisa gehitu zaizkio; izan ere, Nafarroako Gobernuaren ardura dira haien prestakuntza eta edukia.

Gure lanean eskuarki onarturiko auditoretzarau eta -prozedurak aplikatu ditugu, baldintzak eta lortu beharreko helburuak kontuan izanik.

Iritzia eman aurretik, adierazi nahi dugu ekitaldi honetan ekonomia eta kontabilitateko sistema aldatu dela, Nafarroako Gobernuak egun dituen kudeaketa beharretara egokitzeko. Tamaina horretako edozein aldaketaren ondorioak, batez ere ezarpeneko lehen-dabiziko urtean, honakoak izaten dira: giza baliabide asko erabiltzea horretan, nolabaiteko segurtasun falta sistema berriaren egokitasunaren inguruan eta balizko arriskuak eta akatsak kontabilitateko informazioaren kalitateari begira.

Gure jardueraren ondoriozkoa da jarraian agertzen dugun iritzia.

### IV.1. 2001eko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen egoera-balantze bateratuak Foru Ogasunaren ondare-egoeraren ezaugarriak nabarmenenak islatzen dituzte, 2001eko abenduaren 31n, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetu materiala. Inbertsioetarako aurrekontu gastuak doikuntzarik eta erregularizaziorik gabe atxiki zaizkio ibilgetu materialari. Beraz, saldo horiek ez dituzte modu egokian islatzen Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren mota horretako ondasunak, eta ibilgetuaren zenbatekoak eta ondasun higiezinaren inbentariokoak ez daude loturik edo ez dira bat etortzen.

- Zordunak. Aplikatzeko daude kasuan kasuko egiaztapen prozedurak berriki informatizatu diren tributu figuretan, eta berrikusteko daude, halaber, aspaldikoak diren saldoak.

- Gorabeherak. Ez dira kontuan hartu Nafarroako Gobernuak langile funtzionarioen pentsio-sistema indardunak sorrarazitako betebeharrak aktuarioetatik eratorritako gorabeherak.

### IV.2. 2001eko AURREKONTUAREN EXEKUZIOA

2001eko aurrekontuaren likidazioan azaltzen diren gastu eta dirusarrerek egokiro islatzen dute aldi horretan Nafarroako Gobernuak burutu duen jarduera, hurrengo salbuespenarekin:

- Ekitaldi horretako gastuak antzeman dira, 3.800 milioi pezeta inguruko zenbatekoarekin, eta 2002ko aurrekontuan kontabilizatu dira. Gastu horiek, funtsean, farmakoen eta farmaziako prestazioen kontzeptuetatik heldu dira, aurrekontuko eskasiak arlo horretan ekitaldiaren amaieran aurrekontu aldaketak eginez erregularizatzen baitziren aurreko ekitaldietan.

Gobernuak, aurreko ekitaldietakoekin koherenteak diren irizpideak aplikatuz, ekitaldiko zor jaulkipena eta kitapenaren zenbateko garbia islatu du; 5.880 milioi pezetako amortizazioa eta 4.992 milioi pezetako jaulkipena izan dira.

### IV.3. 2001eko EKITALDIKO OROIT-IDAIZKIA

2001eko ekitaldiko oroit-idazkiak, txosten honi erantsirikoak, Nafarroako 2001eko ekitaldiko kontu orokorrak interpretatu eta oro har ulertzeko behar den informazioa eskaintzen du.

Nolanahi ere, informazio edukia hobetzeko ahaleginean jarraitu beharra dago, bereziki gai hauetan: diruzaintza, zerga zordunak eta baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia.

#### IV.4. LEGEZKOTASUNAREN PRINTZIOIA BETETZEA

Egindako lanaren eta berrikusiriko laginaren arabera, Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen jardura legezkotasun printzipioarekin bat bete da, salbu eta zenbait prozedurari ez zaiela jarraitu osasun arloko hornigaien erosketan, batez ere farmakoak eta farmaziako prestazioak.

#### IV.5. FORU OGASUNAREN FINANTZA-EGOERA.

2001eko ekitaldiko hasierako aurrekontuak 394.525 milioi pezeta egiten du; orotara, ehuneko 6ko aldaketa positiboa izan du: 26.027 milioi. Aitorturiko betebeharrak 394.019 milioi pezetakoa dira eta aitorturiko eskubideak, berriz, 382.929 milioi pezetakoa.

Gastuen betetze maila ehuneko 94koa da eta dirusarrerena ehuneko 91koa.

Aurrekontuko emaitzan 11.014 milioiko defizita ageri da; aurreko ekitaldian, aldiz, 996 milioiko superabita, banaketa honekin: (pezetak, milioika)

Emaizta	2000	2001	Aldaketaren %
1. Aurrezki gordina <sup>(3)</sup>	78.727	58.857	(25)
2. Kapital defizita <sup>(4)</sup>	(67.589)	(66.951)	(1)
3. Emaizta ez-finantzarioa (1-2)	11.138	(8.094)	(173)
4. Finantza emaitza <sup>(5)</sup>	(10.173)	(2.920)	(71)
<b>AURREKONTUKO EMAITZA (3+4)</b>	<b>965</b>	<b>(11.014)</b>	<b>(1.242)</b>

Beraz, Nafarroako Gobernuaren aurrezki gordinak ehuneko 25eko jaitsiera adierazgarria izan du, eta horren azalpena da, funtsean, gastu arrun-

ten hazkundera ehuneko 7koa izan dela, eta dirusarrerera arruntena, berriz, ehuneko 1ekoa besterik ez. Horrenbestez, aurrezki gordin hori ez da nahikoa izan inbertsio edo kapital beharrei aurre egiteko.

Azken lau urtean gastu eta dirusarrerera arruntaren bilakaera, adierazletan, ondoko taulan ageri da. Ikus daitekeenez, gastu arruntek ehuneko 21eko inguruko hazkundera izan dute epe horretan, baina dirusarrerera arruntek, berriz, ehuneko 10eko hazkundera baizik ez dute izan, datu nominaletan.

	1998	1999	2000	2001
Gastu arruntak	100	105,7	112,1	120,5
Dirusarrerera arruntak	100	100,2	108,1	109,5

Zor publikoak 888 milioiko jaitsiera izan du aurreko ekitalditik, eta 2001eko abenduaren 31n 106.733 milioi egiten zuen, osotara, hau da, dirusarrerera arruntaren ehuneko 29 eta gutxi gorabehera 192.000 pezeta biztanleko.

Estatuko Ogasun Idazkaritzak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak izenpeturiko aurrekontua bateratzeko eszenatokiak aurreikusten zuen 2001erako zor biziaren gehieneko bolumena 140.100 milioikoa izatea, eta eragiketa ez-finantzarioetako egoera aurrekontu orekaduna izatea. Nafarroako zor publikoa 106.733 milioikoa da -hitzartutakoa baino 33.367 milioi gutxiagokoa baina ez da lortu oreka ez-finantzarioa, 8.094 milioi pezetako defizit ez-finantzarioa gertatu delako.

#### IV. 6. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

III.2. epigrafean azaldutako mugak eragotzi egiten digu 2001eko ekitaldiko aurrekontu-betetzearo har erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiari buruzko balioespen orokorra egitea. Dena den, afera hori zaila da balioesten, foru gobernuak betetzen dituen jarduerak eta eginkizunak askotarikoak eta konplexutasun ezberdinekoak direla gogoan izaten badugu.

(3) Aurrezki gordina: dirusarrerera arruntak-gastu arruntak.

(4) Kapitaleko emaitza: kapital dirusarrerak-kapital gastuak.

(5) Finantza emaitza: finantza-aktibo eta -pasiboen bidezko dirusarrerak-finantza-aktibo eta -pasiboen bidezko gastuak.



2001eko aurrekontua 94 programatan dago egituraturik, gobernuaren jarduera osoa hartu eta, oro har, islatzen dutenak alderdi hauei dagokiena: zuzendu edo eragin nahi den egoera, programaren helburuak eta ekintzak, baliabide propioak eta gastu eta dirusarreraren laburpena; helburuen jarraipena egiteko beharrezkoak diren adierazleez den bezainbatean, berriz, horietako ehuneko 25ek ez dute adierazle bat bera ere agertzen eta horien kopurua programetako ehuneko 58an baizik ez da adierazten.

Kontu orokorren oroit-idazkian -aurrekontu-betetzea departamentuka aztertzen denean, hain zuzen ere-, iruzkin batzuk egin dira 94 aurrekontu-programetatik 54ren betetzeari buruz. Iruzkina mota askotakoak eta heterogeneoak dira: oro har, programaren aurrekontu-betetzeari buruzko datuen berri ematen da; beste batzuetan, eginiko jarduerari buruzko datuak ere eransten dira; eta, batzuetan, helburu kuantitatibo eta kualitatiboan betetzea balioesten da.

Kontu-hartze Zerbitzuak eginiko ahalegina gorabehera, ezin izan da lortu departamentuek beren jarduerari buruzko laburpen bat homogeneotasunez bidaltzea, hain zuzen ere eraginkortasunari, efizientziari eta ekonomiari buruzko balorazioa egiteko.

#### IV.7. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBARAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

2001. urtean indarra izan zuten artean ere gomendio nagusiak, ibilgetuari buruzkoak eta zerga zordunen saldoak egiaztatzekeo prozesua osatzeko. Era berean, kontu hartzekeo sistemak behin-behinekoa izaten segitzen du -ekitaldi horretan departamentuen ondoko kontrol txostenak egin badira ere- eta Kontratazio Batzordearen aholkularitza eta kontrol jarduera, lehen bezala, txikia da.

Programen arabera eginiko aurrekontuez eta eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren azterketaz esan beharra dago azterketa zorrotza egin beharko dela aurrekontua eratzeko gaur egungo metodologia erabakiak hartzekeo prozesuaren betebeharretara, finean, kudeaketarenetara, egokitzekeo.

#### V. GOMENDIO OROKORRAK

Jarraian, hainbat gomendio agertzen dira, eginiko lanaren ondoriozkoak, eta horien artean sarturik daude beste ekitaldi batzuetan eginak izanik oraindik bete gabe daudenak:

#### V.I. URTEKO AURREKONTUAK ETA KONTUAK

- *Urteko aurrekontuak prestatzea gastuaren aurreikuspen errealei begira eta, beharrezkoa denean, aurrekontu aldaketak egitea.*

- *“Aurrekontuari aplikatzeke dauden eragiketen zordunak” izeneko kontua, kontabilitate publikoaren plan orokorrean aurreikusirikoa, erabiltzea egin eta salbuespen gisa aurrekontuari egotzi ezin izan zaizkion gastuak erregistratzeko.*

- *Ogasun publikoari buruzko Foru Legea berraztertu eta garatzea, araudi indarduna egungo errealitateara, bai ekonomikora bai antolaketa mailakora, egokitu bidenabar, bereziki alderdi hauetara:*

- a) *Nafarroako aurrekontu orokorren eta Nafarroako kontu orokorraren artean korrelazio material eta formala definitzea bi agirietan sartu beharreko ente eta erakundeei dagokienez.*

- b) *Aurreko puntua kontuan harturik, integrazio eta bateratze arauak prestatzea Nafarroako kontu orokorra eratzen duten banakako kontuen gainean, agiri horrek kontabilitatearen informazio bateratua eman dezan foru administrazio publikoaren sektorearen ekonomia eta finantza jarduera osoari buruz eta ondare egoerari buruz.*

- c) *Zehaztasunez eta lehenbailehen garatzea aurrekontua luzatzearen inguruko gai guztiak.*

- *Ekitaldiko oroit-idazkiari eranstea ekitaldi bakoitzean betetako jarduera hobeki ulertzeko lagungarri diren datu eta informazio guztiak. Hartara, beharrezkoa da honakoak eranstea:*

- a) *Aurrekontuko emaitza, kontabilitate publikoaren plan indardunak adierazten duen egiturarekin bat; horrek nahitaez eskatzen du finantziario atxikia duten gastuetan izandako gastu desbideraketei eta diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituei buruzko informazioa izatea eskura.*

- b) *Aurrekontuen likidazioari buruzko egoerarietan, kobrantza eta pagamenduei buruzko informazioa, bai eta hitzarturiko, erantsirikoa eta balioabeturiko kredituen gerakinei buruzkoa ere.*

- c) *Diruzaintzako gerakinari buruzko egoerari, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko finantza egoeraren adierazgarria eta hurrengo ekitaldietako balizko aurrekontu-aldaketak finantzatzeko iturria.*

- d) *Zergen aitortpen gehituak.*

- e) *Zerga gastuen aurreikuspenen jarraipena.*

f) Zordunen eta hartzekodunen saldoen eta bilakaeraren azterketa zehatzagoa.

g) Kontabilitate nazionalaren (SEC'95) premiak betetzeko behar diren egoera-orri osagarriak.

- Gaur egungo pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatetsi eta finantzako egoera-orrietan erregistratzea.

## V.2. AURREKONTUKO PROGRAMAK

- Programen arabera egungo aurrekontuen erabilgarritasuna aztertzea, honako alderdi hauei garrantzia emanez:

a) Egungo programen beharrak eta eraginkortasuna ziurtatzea, hau da Aurrekontuan horiek mantendu beharra frogatzea.

b) Helburuen arabera aurrekontuak aplikatzea soilik ondasun eta zerbitzu publikoak sortzen dituzten jardueri eta helburuak finkatu ahal dituztenei. Gainerako jardueretatik heldu diren gastuak –gehien bat sostengu eta erregulaziokoak– aurrekoei egotziko litzaizkieke prozedura erraztuen bidez; kontuan hartuko dira, nolana ere, koordinazio arazoengatik edo eskalako ekonomiengatik modu zentralizatuan tratatzea komeni duten gastuak.

c) Programaturiko jardueri helburu bidezko kudeaketa edo bidezko ebaluaketa sistema atxiki litzaieke, kudeatzeko, erantzukizunak egotzeko eta lortutako errendimendu edo helburuen truke sariak ezartzea eskatuko lukeena.

d) Ebaluazio sistema horren ezarpena mailaka gauzatu beharko da, langileak behar bezala trebatuz eta ezarpenaz arduratuko den unitate bat sortuz, behar diren prozedura normalizatuak taxu ditzan, bereziki helburuen jarraipenari eta kontu orokorren oroit-idazkian sartu beharreko informazioari begira.

e) Prozesu horretan zehaztea kudeaketa zentroaren zeregina eta Nafarroako Gobernuak kontu-hartzailetzarena.

f) Araudia, batez ere aurrekontu eta kontabilitate arloko kudeaketaren eta giza baliabideen gainekoa, prozesu horren emaitzetara moldatzea.

## V.3. FINANTZA-EGOERA

- 2001eko ekitaldian sortutako defizit ez-finantzarioak eta gastu arrunten hazkunderako joerak agerian uzten dute Nafarroako Gobernuaren gastu politiken eta programen azterketa sistematikoa egin beharra dagoela, eta gastu alternatibak

aztertu ere, aurrekontua ekonomia egoerara beretako nola orokorra- egokitzearen.

- Hitzarmen Ekonomikoaren 2000-2004 bost urte berrirako oinarritzko ekarpena gaurkotzeko Estatuarekiko negoziazioa burutzea.

## V.4. KONTABILITATEKO SISTEMA

GE'21 sistemaren ezarpeneko aurreneko ekitaldia iraganik, hauexek dira gure gomendioak:

- Sistema berriaren operatibitatea aztertu, antzemandako ahuleziak berrikusi eta haren errendimendua hobetzeko behar diren elementuak gehitzea. Era berean, kontabilitateko kudeaketan aritzen diren langileen prestakuntza jarraitu eta etengabeko bideak jarri behar dira.

- Sistemaren erreforma osatzea falta diren moduluak ezarriz.

- Kontabilitateko jarraibideak prestatzea, sistema berrira egokitu eta eginkizun hauek betetzeko: kontabilitateko eragiketa multzoa arautu, aplikatu beharreko kontabilitateko plan orokorra zehaztu, kontabilitateko zerbitzu zentralak bete beharreko kontrol eta koordinazio zereginak bete eta ekitaldia ixteko eragiketak normalizatzea.

## V.5. KONTU-HARTZAILTZA ETA BARNE KONTROLA

- Kontu-hartzailetzari beharrezkoak diren giza baliabideak ematea, bere eginkizunak betetzean egonkortasuna bermatzeko.

- Nafarroako Gobernuaren kontu-hartzeko eredu behin betikoz onestea.

- Testuinguru horretan, kontratazio mahailetako kide izendaturiko kontu-hartzaileen zeregina zehaztu eta argitu beharko da, egun ez baitute parte hartzen prozesu horietan.

- Ondotiko kontroleko jarduketari eustea, departamentu eta erakunde autonomo guztiak sarturik, eta ekitaldi honetan lortutako emaitzak eta hurrengo ekitaldietarako horien norainokoa eta jarraipena aztertzea.

- Departamentu guztietan eragina izan den sistematika bat onestea, ondotiko kontrolerako txostenetatik eta auditoretzako ataletik sortzen diren gomendioak ezartzeko.

## V.6. LANGILEAK

- Aparteko orduak. Prozedura bat ezartzea, langile publikoek egin edo sorrarazitako aparteko orduen gaineko jarraipen eta kontrol egokiak bermatuko dituena.

- *Produktibitatea. Osagarri hori loturik egon behar da nahitaez urteko helburuak eta emaitzak betetzearekin, aldez aurretik zehazturiko irizpide batzuei eta kontrol, ebaluazio eta jarraipen prozedura bai jarraikiz.*

- *Lehenbailehen gaurkotzea Foru Komunitateko administrazio publikoen montepioei atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboen sistema.*

#### V.7. ADMINISTRAZIO KONTRATUAK

- *Administrazio kontratuen arloko foru arauak osatzea, Nafarroako administrazio publikoei esparru egokia emateko gai honetan.*

- *Berriro ere errepikatzen dugu beharrezkoa dela Kontratazio Batzordeak kontratazio publikoaren kontrol eta aholkularitzari dagokionez araudiak esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.*

Kontratuetatik aztertutako laginetik eta Kontuhartze Orokorak eginiko ondoko kontrol txostenetatik honako gomendio hauek atera ditugu:

- *Sozietate publikoei eginiko mandatuak, kontratuei buruzko araudiaren aplikazio estutik salbuetsirik badaude ere, kudeaketa eta kontrola behar bezalakoak izateko hauxe eskatzen dute:*

a) *Mandatuaren xedea enpresa publikoaren xede sozialarekin bat etortzea.*

b) *Mandatuaren xederen definizio zehatz eta zuzena.*

c) *Ezarritako prezioa eta eman beharreko zerbitzuak ezarri eta justifikatzea.*

d) *Zerbitzuak emateak gertaturiko aldaketak.*

e) *Egindako prestazioa justifikatzeko euskarri dokumentala.*

*Eskakizun horiek erregelamendu berariazko batean zehatz litezke, eta bertan aurreikusi administrazioaren eta haren enpresen arteko merkataritza harremanen funtsezkoa alderdi guztiak. Testuinguru horretan ez da ahaztu behar, halaber, kontabilitate nazionalari buruzko Europako araudiak -SEC'95- Nafarroako foru administrazio publikoaren sektoreko kontuak eratzean izanen duen eragina.*

- *Biltzar honek behin eta berriz adierazi duenez bere txostenetan, modu egokian ikuskatu behar dira obra proiektuak, haien exekuzioa egokia dela bermatzeko.*

- *Kaudimen teknika frogatzeko bitartekoak ez dira adjudikatzeko irizpidetzat hartu behar baizik eta hautapen prozesuan onartzeko irizpidetzat soilik.*

- *Eskaintzak hautatzerakoan epea erabiltzeak baloratzeko irizpide gisa horren jarraipen zorrotza eskatzen du exekuzio epean; egokia denean, kasuan kasuko pleguetan ageri diren zehapenak ezarriko dira.*

- *Pleguek ez dute beti ezartzen langile minusbaliaturen gutxieneko portzentajea duten enpresen lehentasuna, balorazio berdina duten eskaintzen artean adjudikazioa egiterakoan.*

- *Hornigaiak eskuratzerakoan, izaera bereko erosketetan zatikatzea saihestu behar da.*

#### V.8. IBILGETU MATERIALA

- *Ibilgetuko kontabilitate-saldoak berrikus eta bahetu bitez, eta behar diren prozedura administratibo eta kontabilitatekoak ezar bitez bermatzeko saldo horiek izaera horretako ondasun-multzoa uneoro behar bezala islatzen dutela.*

- *Ondasun higigarrien inbentarioa egitea, haren osagaiak erregistratu eta baloratzeko irizpide arrazoizkoak zehaztu ondotik.*

- *Kontabilitateko datuak eta inbentariokoak bateratzeko aukera emanen duten prozedurak taxutzea.*

- *Ibilgetua kudeatzeko modulu bat ezartzea.*

#### V.9. ZORDUNAK

- *Zerga zordunak. Egiteko dauden tributu figuratan egiaztatze-prozeduren ezarpena osatzea, halako moldez non, sistematikoki egiazta dadin kontabilitate-datuak tributu-fitxategietan daudenean bat datozela, eta eginiko berrikuspenen konstantzia utziz.*

- *Aztertzea zordunen kontuek zer saldo duten abenduaren 31n, aspaldikoak eta saldo hartzekoduna dutenak batez ere.*

- *Banaketa kontua Balantzean ongi erregistratzea kontu horietako saldo zordunak eta hartzekodunak.*

#### V.10. FUNDAZIOAK ETA BESTE ENTE PUBLIKO BATZUK.

- *Esparru juridiko bat taxutzea, arau orokor gisa erregula ditzan Foru Komunitateko administrazioak zerbitzu publikoak emateko izan ditzaketen entitate mota desberdinak, alderdi oinarritzko hauek aintzat harturik:*

a) *Horiek eratzeko arrazoiak eta oroit-idazki ekonomikoa.*

*Araubide juridikoa eta kasuan kasuko administrazio publikoarekiko harremanak.*

*d) Helburuak betetzeko behar adinako zuzkidura eta ondasun publikoen lagapenaren gaineko kontrola.*

*d) Aurrekontu eta kontabilitate araubidea.*

*e) Kontuak ematea, baldintza jakin batzuk betetzen direnean kanpoko auditoretzara jotzea eta Kontu-hartze Orokorrak bete beharreko zereginak.*

*f) Foru Komunitateko administrazioaren kontu orokorrean sartu ala ez, kontrol eta kontabilitate nazionaleko irizpideei jarraikiz.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditeore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## **1. ERANSKINA. NAFARROAKO GOBERNUAREN OROIT-IDAZKIAREN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA LAN IRUZKIN BERARIAZKOAK**

Ondotik aurkezten dira txostena eta oroit-idazkia hobeki ulertzen laguntzeko garrantzitsutzat jotzen diren iruzkin orokorrak, bai eta egindako lan berariazkoetatik heldu diren beste batzuk ere.

### **GE'21 kontabilitate sistema**

GE'21 Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen ekonomia eta aurrekontu kudeaketarako sistema integratu bat da; haren xedea da kudeaketa publikoa modernizatzea eta egungo premietara egokitzea. Sistema ezarritu lortu nahi diren helburuak hauexek dira:

- Informazio ekonomiko eta finantzario guztia euskarri bakar batean integratzea, erregistro paralelorik sortu gabe eta datu bakarraren printzipioan oinarrituz.

- Kudeaketa ekonomiko finantzarioaren tratamendu integrala, aurrekontua prestatzeko fasetik hasita aurrekontu horretan aitorturiko betebeharrak ordaintzeko fasera bitarte.

- Informazio horri eskuragarritasun handiagoa eta hobe ematea zenbait tresnen bidez, erabil-tzaileen beharren arabera.

- Aurrekontuko kudeaketari buruzko informazioa hobetzea.

- Errepikatzen ohi diren zereginen mekanizazioa.

- Jarduera ekonomikoaren gaineko kontrol sistemak hobetzea, kontrol zeregin horien efizientzia areagotuko duten arrisku faktoreetatik abiatutako kontrol hautakor baterako eskema taxutuz.

2001eko ekitaldian aurrekontua prestatu eta betetzeko moduluak ezarri dira. Era berean, honako kudeaketari ere heldu zaio: Toki Administrazioaren Departamentuaren dirulaguntzak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko biltegiak.

2002koo ekitaldirako aurreikusirik dago, eurora egokitzeaz gain, informazio erantsia lortzea, epe ertaineko planifikazio ekonomikoaren prozesua, urte anitzeko gastuen kudeaketa eta kontratazio publikoaren kudeaketa elektronikoa.

Dirusarreraren kudeaketa –proiektuaren bigarren fasean egin beharrekoa–, ibilgetuarena eta diruzaintzarena ez daude aurreikusirik, hasieran behintzat.

Bestalde, Gobernuko arduradunek esan digutenez, 2002an Nafarroako Gobernuko kudeaketa sistemak eurotan jarduteko behar ziren neurriak guztiak hartu dira.

### **Kontu-hartzailtza eta barne kontrola**

Gertaera aipagarria iruditzen zaigu Gobernuko departamentu ia guztien a posterioriko kontrol-txostenak egin direla.

Langileen arloan eta kontu-hartzailtza araubide iragankorraren behin-behinekotasunaren arloan, egoera Kontuen Ganbara honen aurreko txostenetan deskribaturiko berbera da. Nolanahi ere, 2002ko ekitaldirako aurrekontu aurreikuspenetan ageri zen kredituak esleitzea kontu-hartzailtza zerbitzuko langile beharrei erantzuteko; aurreikuspen horiek, ordea, ez dira gauzatu, proiektua onetsi ez izanaren ondorioz.

### **Kontratazioa.**

A.. Lege esparrua.

Administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legearen alderdi oinarritzko hauek garatzeko daude oraindik:

- Arau hori Nafarroako toki entitateetara egokitzea.

- Administrazio Kontrataziorako Batzordeko kideen, antolamenduaren eta eginkizunaren gaineko erregulazioa; izan ere, batzordeak ez ditu oraindik betetzen Nafarroako administrazio publikoaren kontratazioaren arloko kontsulta, aholku eta

kontrolerako eginkizun garrantzitsu eta beharrezkoak.

- Zenbait gairen inguruko xedapenak, hala nola bermeak eratzea, kontratisten sailkapena, pleguen onespena, lizitazio iragarkiak eta abar.

Oroit-idazkiarekin bat, Ondare Zerbitzuak Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Lege berriaren aurreproiektuaren zirriborroa prestatu du.

#### B. Kontratuen arloko jarduera

Kontratuen Erregistroak igorritako datuen arabera, 2001eko ekitaldian 915 kontratu izenpetu dira, eta adjudikazioaren zenbateko osoak 21.054 milioi pezeta egin du. Aurreko ekitaldiari dagokionez, kontratuen kopuruak lehengoan dirau -914 eta 915, hurrenez hurren, baina adjudikaturiko zenbatekoa ehuneko 34 handitu da 2001ean.

Nafarroako Gobernuak kontratuen arloan gauzatutako jardueraren barrenean nabarmenenak dira Osasun Departamentua, zenbatekoaren ehuneko 30arekin, eta Herrilan Departamentua, ehuneko 25arekin.

Kontratu motari dagokionez, berriz, 915 horiek honelaxe daude banaturik:

Kontratu-mota	Kopurua
Laguntza teknikoa	283
Obrak	106
Hornidura	523
Zerbitzu publikoen kudeaketa	3

Adjudikaziorako gehien erabili den prozedura lehiaketarena da –kontratuen ehuneko 80 baino gehiago–; prozedura negoziatua kasuen ehuneko 11n aplikatu da.

#### Hitzarmen Ekonomikoa

Hitzarmen ekonomikoarekin loturiko gastuak eta dirusarrerak, 2001ean eginikoak, hauexek dira, labur (pezetak, milioitan):

Kontzeptua	Dirusarrerak	Gastuak
Gizarte Segurantzaren transferentziak	2.139	
Estatuko tribuetako partaidetza	6	
BEZaren doiketa	30.453	
Hidrokarburoen doiketa	(7.779)	
Tabakoen doiketa	11.911	
Alkoholaren eta tarteko produktuen doiketa	(5.690)	
Garagardoaren doiketa	(144)	
Karga orokorren ekarpena		66.723
Oсотara	30.896	66.723

Gaurkotzeko daude oraindik 2000ko oinarri-urteko koefizienteak eta parametroak, 2000-2004 epean aplikatzekoak direnak.

#### Aparteko orduak

2001eko ekitaldian, aurrekontuari egotzitako aparteko orduak 180 milioi egin dute, eta Nafarroako Gobernuko departamentu guztietan izan dute tokia. Eginiko azterketatik, nabarmentzekoak dira:

- Nafarroako Gobernuko eta haren erakunde autonomoen langileek egin edo sorrarazitako aparteko ordu guztiei buruzko informazio fidagarria eskura izatea bermatzen duen prozedurarik berri ez dugu, aparteko ordu horien ordaina atsedeen denborarekin edo ekonomikoki ematen den gorabehera.

- Oro har, ez dago aparteko orduak betetzeko aurretiazko baimenen berri; ez da kontrolatzen, halaber, arauetan ezarritako baldintza orokorrak betetzea, eta ezarritako gehieneko epea, 50 aparteko ordu/urteko/langileko, alegia, ez gaintzea. Bestalde, departamentuek ez dute langileen egin edo sorrarazitako orduak buruzko aginduzko informazioa, hilean hilekoa, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusira igortzen.

- Nominan ordaindutako aparteko orduak -ordain ekonomikoa dutenak-, berriz, eskura daude, nominaren elementu aldakorra delako eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak haren kudeaketan sartzen baitu. Ordain emateko modu hori, ekonomikoa, salbuespenezkoa izan beharko litzateke, araudi indardunarekin bat, eta ohikoa, berriz, atsedeen denboran ematea.

#### Produktibitate-osagarria

“Produktibitateko osagarria” izeneko lansari kontzeptuan atxikitako betebeharrak aitortuek 296 milioi pezeta egiten dute guztira, aurreko ekitaldian baino ehuneko 96 gehiago, eta batez ere Ekonomia eta Osasun Departamentuan eta Osasun Departamentuan ageri dira.

Legearen arabera, lansari kontzeptu hori loturik egon behar da urteko helburu eta emaitza batzuk, langile publikoek lortu beharrekoak, ezarri eta horien jarraipena egitearekin. Halere, egindako berrikuspenak erakusten duenez, produktibitateko izaera horri zor zaizkion pagamenduen ondoren badaudela beste batzuk inolako helburu edo emaitzarekin loturirik ez duten zenbateko finkoen -hilekoak edo urtekoak- emaitza direnak.

**Zerga zordunak**

Ondoko taulan ageri da zerga kontu nagusien zehaztapena, saldo positibotan -foru ogasunaren aldeko zorrak- eta saldo negatibotan -zergadunaren aldekoak- banaturik. Saldo horiek Nafarroako Gobernuaren egoera balantzearen aktiboan eta pasiboan erregistratzen dira, saldoaren izaera positiboa edo negatiboa kontuan harturik. (zenbatekoa pezetatan, milioika)

Kontuak	Saldo positiboak	Saldo negatiboak
PFEZa	4.794	- 1.256
Sozietateak	6.225	-1.672
Ondarea	301	-203
Oinordetzak	578	-6
Ondare eskualdaketak eta EJD	1.087	-292
BEZa	10.789	-41.208
Bereziak	732	-34
Geroratzea eta zatitzea	9.673	-6
Agentzia betearazlea	23.698	-60

Saldo positiboen ehuneko 28 1000 milioi pezetatik gorako zorra duten zordunena da.

Antzinatasunari dagokionez, saldo positiboen ehuneko 37 eta negatiboen ehuneko 40 –bietetan, ordaindu beharreko BEZa eta gerorapenak kanpoan utzirik– 1998ko ekitaldiaren aurreragokoak dira.

2001eko ekitaldian, aurreikusiriko prozedurei jarraikiz, baliogabetu dira kaudimen gabezien eta bestelako arrazoien ondoriozko eskubideak, 6.200 milioi pezetako zenbatekoarekin, horien ehuneko 89 Agentzia Betearazletik etorria.

**Abalak eta arriskuak****A. Nafarroako Gobernuak:**

2001eko abenduaren 31n eraturik zeuden abalek 6.952 milioi pezeta egiten zuten; horrek esan nahi du 471 milioiko hazkundera izan dutela aurreko ekitalditik. Hazkunde hori gehien bat ikerketa eta garapenaren arloan eratu direnetan gertatu da; krisian dauden enpresei emandako abalen kasuan, 2001eko ekitaldian ez da abal bat ere eman, 133 milioi ezeztaturik gelditu dira enpresek hartutako konpromisoak bete direlako eta beste 20 milioi abala exekutatu delako.

**B. Enpresa publikoen sektorea**

Enpresa publikoen sektorea osatzen duten enpresek bermaturiko abalek eta arriskuek 4.880 milioi egiten dute; zenbateko horretatik, ehuneko 87 Nafinco enpresan biltzen da.

**Etorkizuneko ekitaldiarako hitzarturiko gastuak.**

2001eko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuak hurrengo hiru urtetarako hitzarturiko gastuak hauexek dira: (zenbatekoa pezetatan, milioika)

Ekitaldia	Geroko konpromisoak
2002	59.444
2003	41.128
2004	19.114

Aurreko zenbatekoen munta agerian gelditzen da, adibidez, 2002ko ekitaldian, ekitaldi horretarako hitzarturiko gastuek hasierako gastu aurrekontuaren ehuneko 14 egiten dutelako.

Halaber, komeni da adieraztea hitzarturiko aurreko gastuetan ez daudela sarturik zorraren amortizazioa eta interesak, eta 2002-2004 hiru urterako 40.628 milioi pezeta egiten dute.

**Gorabeherak**

Finantzako egoera orrietan eragina izan dezaketen gorabeherak direla-eta, hauexek nabarmenduko ditugu

- Funtzionarioen eskubide pasiboen sistema indardunetik heldu direnak. Biltzar honek berriki eginiko azterlan baten arabera –2002ko ekaina–, langile pasiboek dagoeneko sortutako prestazioen egungo balioak 88.246 milioi pezeta egiten du osotara.

- Lehendakaritza Departamentuak emandako informazioaren arabera, 2001eko ekitaldian 1.314 gai sartu dira Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoan: horietatik ehuneko 76 administrazioarekiko aferei buruzkoak izan dira, ehuneko 9 arlo zibil eta penalekoak, ehuneko 7 lan arlokoak eta ehuneko 6 Auzitegi Konstituzionalekoak. Aurreko afera horietatik sor daitezkeen gorabeherak eta urteko kontuetan izan dezaketan eragina zenbatesterik ez dago.

Dena dela, aholkularitza horrek berak emandako informazioaren arabera, 2001ean 1.129 epai eman dira -jatorria urte horretan nola aurreko urtetan dutena-: horietatik 778 Nafarroako Gobernuaren aldekoak izan dira -6.238 milioi pezetako ondorio ekonomiko positiboarekin- eta kontrakoak 351 izan dira -1.007 milioi pezetako zenbatekoarekin-.

**Eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia****A. Alderdi orokorrak.**

- Nafarroako Gobernuak programatan aplikaturiko aurrekontuaren ezaugarriak hauexek dira:

- Nafarroako Gobernuak egindako jarduera guztiaren aurrekontua egiten da programen arabera, izaera edo eginkizuna zein den ere, eta lausoturik gelditzen da xede nagusia, hau da, arrazionaltasun bideak sartzea kudeaketa publikoan.

- Taxaturiko programek, oro har, Nafarroako Gobernuaren egituraren unitate organiko bati erantzuten diote eta ez betetako eginkizun edo jarduerari.

- Ez dago bereizketa argirik programaren helburuen eta ekintzen artean. Ekintzak ez dira beti identifikatzen kasuan kasuko helburuarekin, eta adierazleak dituzten programetan ez dira beti helburuekin loturik egoten.

- Helburuak eta adierazleak, oro har, ez daude loturik programako aurrekontu kredituekin.

- Ez da, oro har, helburuen betetze mailari buruzko jarraipenik egin, ezta, hala bada, izandako desbideratzeen analisirik ere, bai jardueraren esparruan bai aurrekontuarenean.

B. Sare publikoko ospitaleetan betetako jarduera

Sare publikoko ospitaleen gaineko jarraipen berariazkoa egin da; hortaz, oroit-idazkian ageri diren datuen eta adierazleen arabera, bost ospitaleek betetako jarduera honako taula honetan dago islaturik:

## SARE PUBLIKOKO OSPITALEETAN BETETAKO JARDUERA

ADIERAZLEAK								
OSPITALEA	Dirusarrerak	Ospitaleko egonaldiak	Programaturiko ebakuntzak	Presako ebakuntzak	Ebakuntzak, guztira	Lehen kontsultak	Ondorengo kontsultak	Larrialdiak
Nafarroako ospitalea								
2001eko aurreikuspena	16.548	155.551	8.621	3.980	12.601	78.837	169.500	58.316
2001ean egina	16.873	155.942	8.932	3.709	12.641	88.816	170.088	57.531
Desbideraketaren %	2,0	0,3	3,6	-6,8	0,3	12,7	0,3	-1,3
Bideko Ama Birjina Ospitalea								
2001eko aurreikuspena	21.888	151.027	15.141	2.832	17.973	103.191	221.861	118.412
2001ean egina	21.472	143.551	14.990	2.944	17.934	116.166	221.304	119.519
Desbideraketaren %	-1,9	-5,0	-1,0	4,0	-0,2	12,6	-0,3	0,9
Ubarmin klinika								
2001eko aurreikuspena	3.397	21.639	4.044		4.044	34.656	58.914	
2001ean egina	3.027	21.241	3.836		3.836	34.177	54.838	
Desbideraketaren %	-10,9	-1,8	-5,1		-5,1	-1,4	-6,9	
Tuterako Ospitalea								
2001eko aurreikuspena	7.114	37.131	3.964	1.080	5.044	37.043	66.677	38.000
2001ean egina	7.349	39.482	4.024	943	4.967	37.492	68.804	40.866
Desbideraketaren %	3,3	6,3	1,5	-12,7	-1,5	1,2	3,2	7,5
Lizarrako Ospitalea								
2001eko aurreikuspena	4.445	24.892	2.841	587	3.428	29.948	50.912	21.781
2001ean egina	4.377	23.623	2.543	582	3.125	29.309	49.824	21.279
Desbideraketaren %	-1,5	-5,1	-10,5	-0,9	-8,8	-2,1	-2,1	-2,3

Iturria: Nafarroako Gobernuaren 2001eko ekitaldiko oroit-idazkia

Azterketa horretatik ondokoa azpimarratu behar dugu:

- Dirusarrerei dagokienez, oro har bete egin dira aurrekontuetan jasotako aurreikuspenak, salbuespen bakar batekin, Ubarmin Klinikarena alegia, horren dirusarrera errealak aurreikusitakoak baino ehuneko 11 txikiagoak izan baitira. Oroit-idazkiaren testuan murrizketa horren arrazoi gisa bertan egiten ari diren birmoldaketa lanak aipatzen dira.

- Ospitaleko egonaldien atalean, Tuterako Ospitalean ehuneko 6 handitu dira, Bideko Ama Birjina Ospitalean eta Lizarrakoan aurreikuspenen ehuneko 95era baizik ez dira ailegatu.

- Ebakuntzen kopuru osoetan esan beharra dago Lizarrako Ospitalean eta Ubarmin Kliniketan aurreikuspenen ehuneko 92 eta ehuneko 95 bete

da, hurrenez hurren, eta egoeraren arrazoia anestesista falta izan da.

- Lehendabiziko kontsultetan aipagarria da Iruñeko ospitaleetan aurreikuspenek izan duten gorakada, ehuneko 12koa. Ondoko kontsultetan, berriz, nabarmendu beharra dugu ehuneko 7ko jaitsiera Ubarminen.

- Larrialdien atalean, aurreikuspenak bete egin dira, oro har, baina Tuterako Ospitalea aipatu behar da, larrialdien kopuruak ehuneko 8 egin duelako gora.

#### Erakunde autonomoak

Nafarroako Gobernuak administrazio-izaerako bederatzi erakunde autonomo dauzka, eta haien aurrekontu-likidazioa Gobernuarenean sarturik dago. Erakunde bakoitzaren gastuak eta dirusa-



rrerak honako taula honetan ageri dira: (zenbatekoa pezetatan, milioika)

Erakunde autonomoak	Gastuak Dirusarrerak	
Nafarroako Zerga Ogasuna	4.422	356.990
Evena	195	6
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	3.039	276
Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua	667	90
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	16.787	615
Nafarroako Lan Osasunaren Institutua	586	12
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	83.525	1.638
Nafarroako Emakumearen Institutua	249	20
Nafarroako enplegu zerbitzua	7.473	4.324
Oсотara	116.943	363.971

Gastuei dagokienez, hona azpimarratu beharrekoa:

- Erakunde autonomoek Nafarroako Gobernuaren gastu osoaren ehuneko 30 inguru kudeatzen dute. Kapitulu ekonomikoen arabera, langileen eta ondasun arrunten eta zerbitzuen arloetako gastu guztien ia ehuneko 50 hartzen dute.

- Erakunde autonomoen gastuaren ehuneko 94 gastu arrunta da.

- Horien gastuaren ehuneko 72 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egina da.

Dirusarreraren atalean, Nafarroako Gobernuaren dirusarrera guztien ehuneko 95 kudeatzen dute. Aipamen berezia egin behar da Nafarroako Zerga Ogasunaz, zuzeneko eta zeharkako zerga guztien kudeaketa bere gain harturik baitu.

### Enpresa publikoen sektorea

Nafarroako Gobernuak gehieneko partaidetza dauka —ehuneko 50 edo gehiagoko partaidetza-ehunekoa— 28 enpresaren kapitalean. Aurreko ekitaldiaren aldean izandako aldaketak hauexek dira, labur: “Centro Navarro de Autoaprendizaje de idiomas SL” enpresa publiko berria sartu da; “Oena Bolsas de Papel SA” saldu da eta “Potasas de Navarra SA” eta “Soles Systems SA” desegin eta likidatzeko prozesuan sartu dira.

Enpresa hauek guztiek 25.689 milioi pezetako gastua eta 28.805 milioi pezetako dirusarrerak eragin dituzte. Haien langile kopurua mila ingurukoa da eta jasotako dirulaguntzek 3.498 milioi pezeta egin dute guztira.

Ekitaldiko emaitzei dagokienez, etekinak lortu dituzten enpresen artean Sodena eta Audenasa dira aipagarrienak, 10.539 eta 2.370 milioi pezetako etekinekin, hurrenez hurren; galera handienak Posusak eta Nafincok izan dituzte, 519 eta 489 milioi pezetakoak, hurrenez hurren.

Enpresa publikoen sektorearen epe luzerako zorrak 25.458 milioi pezeta egiten dute; enpresen arabera, hauexek nabarmentzen dira: Audenasa, 16.223 milioirekin, Vinsa, 2.870 milioirekin, eta Nilsa, 2.097 milioirekin.

Guztiek aurkeztu dituzte kanpoko auditoretzak eginiko txostenak, Sodexna SL enpresak salbu, ez baitu jarduerarik. Auditoretzako txosten horiek irakurrita, hauxe aipatu behar dugu:

- Hogeita bat kasutan iritzia aldekoa da.

- Bost kasutan, iritzia aldekoa da baina salbuespenekin; zehazki, honen ingurukoak dira:

a) Tracasa: ziurgabetasuna, parte hartzen duen aldi baterako enpresen batasunetan —bitan hartzen du parte— izandako eragiketak eta emaitzak sartu ez izanak eragindakoa.

"b) Riegos de Navarra: ziurgabetasuna, emandako mailegu batzuen kobratzeari buruzkoa.

c) Nasuinsa: ziurgabetasuna, industrialdeetan kobratzeke dauden kostuez eginiko kalkuluen inguruan.

d) Cetenasa: ziurgabetasuna, langileek aurkeztutako erreklamazio bat dela-eta.

e) Nafinco. Alde batetik, kobratzeko dauden saldo batzuei buruzko informazio finantzarioaren faltak eragindako muga du, eta, bestetik, ziurgabetasuna, berreskuratu beharreko zenbatekoak direla-eta.

- Posusa enpresaren urteko kontuei buruzko iritzirik ez da eman, norainokoaren bi muga garrantzia ikusirik; muga horien mamia da sozietatea likidazio fasean dagoela eta ez dela eskura izan garrantzizko informaziorik partaidetzaren zati handiena duen sozietate bati buruz.

**2. ERANSKINA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2001EKO KONTUAK**

## 2001eko gastuen aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Kapitulua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak
I. Langile gastuak	4.679.796.412	50.907.436	4.730.703.848	4.514.663.272
II. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.813.288.981	11.032.954.494	2.846.243.475	2.146.113.097
III. Finantza gastuak	2.000.000	0	2.000.000	991.701
IV. Transferentzia arruntak	397.074.479	106.743.649	503.818.128	388.266.978
VI. Inbertsio errealak.	2.194.533.295	962.832.151	3.157.365.446	1.318.613.331
<b>Guztira</b>	<b>9.086.693.167</b>	<b>2.153.437.730</b>	<b>11.240.130.897</b>	<b>8.368.648.379</b>

## 2001eko dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Kapitulua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubide garbiak
III. Tasak eta beste dirusarrerak	1.252.722.731	342.479.960	1.595.202.691	1.591.585.108
IV. Transferentzia arruntak	6.586.010.168	333.333.846	6.919.344.014	7.039.258.914
V. Ondare dirusarrerak	46.759.223	0	46.759.223	70.172.298
VII. Kapital-transferentziak	1.180.000.000	48.841.953	1.228.841.953	479.305.596
VIII. Finantza-aktiboak	21.201.045	1.428.781.971	1.449.983.016	0
<b>Guztira</b>	<b>9.086.693.167</b>	<b>2.153.437.730</b>	<b>11.240.130.897</b>	<b>9.180.321.916</b>

## Egoeraren balantzea 2001eko abenduaren 31n

JARDUNEAN	2000	2001	PASIBOA	2000	2001
IBILGETUA	17.632.607.900	17.613.975.778	FUNTS PROPIOAK	19.083.221.772	19.940.079.609
Ibelgetu ez-materialak	78.446.423	97.892.634	Ondarea	18.722.359.937	18.729.840.711
Aplikazio informatikoak	186.002.885	274.219.014	Ondarea	7.301.354.299	7.308.835.073
Amortizazioak	-107.556.462	-176.326.380	Lagatako ondarea	11.421.005.638	11.421.005.638
Ibelgetu ez-materialak	17.543.729.897	17.497.462.789	Aurreko ekitaldietako emaitzak	270.049.838	360.861.835
Lursailak eta eraikinak	15.758.835.715	16.296.854.741	Aurreko ekitaldiko emaitza posit.	556.745.907	647.557.904
Instalazio teknikoak eta makineria	2.686.100.048	2.939.912.998	Aurreko ekitaldiko emaitza negat.	-286.696.069	-286.696.069
Tresneria eta altzariak	1.589.803.020	1.721.093.874	Ekitaldiko emaitzak	90.811.997	849.377.063
Bestelako ibilgetua	4.824.862.504	5.187.090.698	EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.480.931.342	1.287.123.957
Amortizazioak	-7.315.871.390	-8.647.489.522	Hartzekodunak	1.480.931.342	1.287.123.957
Finantza ibilgetu iraunkorrak	10.431.580	18.620.355	Aurrekontuko hartzekodunak	1.083.622.555	839.583.111
Epe luzerako baloreen zorroa	9.691.580	17.172.355	Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	27.417.257	30.553.457
Epe luzerako eraturako fidantza eta gordailuak	740.000		Administrazio publikoak	369.819.530	414.540.671
Homidurak	1.448.000		Beste hartzekodun batzuk	2.022.902	
AKTIBO ZIRKULATZAILEA	2.931.545.214	3.613.227.788	Epe laburreko eraturako fidantza eta gordailuak	72.000	423.816
Zordunak	1.378.358.189	1.300.424.123			
Aurrekontuko zordunak	1.475.822.041	1.349.921.957			
Aurrekontukoak ez diren zordunak	16.741.669	25.902.118			
Administrazio publikoak	157.746	157.746			
Beste zordun batzuk	911.024	5.413.070			
Homidurak	-115.274.291	-80.970.768			
Aldi baterako finantza inbertsioak	111.500.896	1.360.000.001			
Epe laburreko baloreen zorroa	111.500.896	1.360.000.001			
Epe laburreko bestelako inbertsio eta kredituak	-				
Diruzaintza	1.441.686.129	952.803.664			
AKTIBOA, GUZTIRA	20.564.153.114	21.227.203.566	PASIBOA, GUZTIRA	20.564.153.114	21.227.203.566

### 3. ERANSKINA. FORU KOMUNITATEKO FUNDAZIO PUBLIKOEN SEKTOREA

Sektore publikoak fundazioen esparruan izan ohi duen tokia fundazioen sorreran islatu da, interes orokorreko xedeak lortzearen eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin batera. Presentzia hori, berez, lankidetzeta eta sostengukoa izaten da, joera nagusi bat ezartzearena baino.

Gaur egun, halere, ikus daitekeenez, nagusitzen ari den joera da fundazioak eratzea funts publikoekin, soilik edo zatirik handiena, administrazio publikoaren helburuak edo xedeak erdiesteko eta zenbait kasutan administrazioaren organoek beraiek edo zuzenbide publikoko beste ente batzuek bete izandakoak.

Aurreko bereizketa kontuan harturik eta Nafarroako Gobernuak departamentuek 2001eko abenduaren 31n emandako informaziotik abiatu-rik, Nafarroako Gobernuaren partaidetzeta duten fundazioak hauek dira:

#### Joera nagusia

Hala dela ulertzen da Nafarroako Gobernuak - bai zuzenean bai ente edo enpresa publikoaren bidez- zuzendaritzako organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzeko ahalmena duenean edo fundazioaren kapitalari egindako ekarpenak zati handiena egiten duenean.

#### • CETENESA FUNDAZIOA

Fundazioaren xedea: Nafarroako enpresentzat interesa duten ikerketa zientifikoko, garapen teknologikoko eta berrikuntzaren sustapeneko jarduerak bultzatu eta betetzea.

Babesa betetzen duen departamentua: Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana.

#### • FUNDACIÓN NAVARRA PARA LA CALIDAD

Fundazioaren xedea: kalitatearen kultura eta haren kudeaketa sistema sustatu eta hedatzea.

Departamentu hauei loturik: Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo, eta Toki Administrazio departamentuei.

#### • MIGUEL SERVET FUNDAZIOA

Fundazioaren xedea: osasun publikoaren eta osasun administrazioaren arloetan, teknikari eta profesionalen prestakuntza espezializatua eta hobekuntza sustatu eta antolatzea.

Departamentu hauei loturik: Osasun eta Gizarte Ongizate departamentuei.

#### • FUNDACIÓN NAVARRA PARA LA TUTELA DE PERSONAS ADULTAS

Fundazioaren xedea: legez ezgaiturik dauden eta Nafarroako Foru Komunitatearen gain utzitako adinez nagusien tutoretzak, kuratelak eta defentsa juridikoa.

Departamentu honi loturik: Gizarte Ongizatea.

#### • FUNDACIÓN PARA LA CONSERVACIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO

Fundazioaren xedea: Foru Komunitatean dauden eta interes kulturalako ondasunaren deklarazioa jaso duten monumentuen kontserbazioa eta zaharberritzea.

Departamentu honi loturik: Hezkuntza eta Kultura.

#### • FUNDACIÓN ITOIZ-CANAL DE NAVARRA

Fundazioaren xedea: Itoizko urtegiaren eraginpeko ingurunea babestu eta hobetzea.

Departamentu honi loturik: Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza.

Ondoko fundazio hauetan Nafarroako Gobernuaren presentzia, zuzeneko edo zeharkakoa, sostengu eta lankidetzakoa da, edo hein txikikoa.

#### • JULIAN GAYARRE FUNDAZIOA

Fundazioaren xedea: ekimenak sustatzea Julian Gayarrerren oroimenez eta omenez, eta arduratzea, halaber, haren kultur oinordetzeta den ondarearen kontserbazioaz, babesaz eta zaintzaz.

Departamentu honi loturik: Hezkuntza eta Kultura.

#### • ARRESE FUNDAZIOA

Fundazioaren xedea: Corellako La Encarnación eliza berreskuratu eta herriko emari artistiko-historikorako ekartzea, bai eta herri horretan ondasun historikoak eskuratu edo kontserbatzeko beste edozein jarduera ere.

Departamentu honi loturik: Hezkuntza eta Kultura.

#### • PABLO SARASATE FUNDAZIOA

Fundazioaren xedea: musika eta ikerketa sustatzea, Nafarroako musika ondarea ikertu, kontserbatu eta zabaltzea.

Departamentu honi loturik: Hezkuntza eta Kultura.

- AMADO ALONSO FUNDAZIOA

Fundazioaren xedea: Amado Alonsoren bizitza eta obraren zabalkundea Nafarroan, Espainian eta nazioarteko zientzialarien artean.

Departamentu honi loturik: Hezkuntza eta Kultura.

- FUNDACIÓN MISTERIO DE OBANOS:

Fundazioaren xedea: "Obanosko Misterioa" berreskuratzea.

Departamentu honi loturik: Hezkuntza eta Kultura.

- FUNDACIÓN RAÍCES DE NAVARRA

Fundazioaren xedea: Nafarroako kultura, musika eta artea garatu, sustatu eta ikertzea.

Departamentu honi loturik: Ekonomia eta Ogasuna.

- FUNDACIÓN CENER-CIEMAT

Fundazioaren xedea: Energia berriztagarrien sektorerako interesekoak diren ikerketa zientifikoko, garapen teknologikoko eta berrikuntzaren sustapeneko jarduerak betetzea.

Departamentu honi loturik: Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana.

Fundazioen lehendabiziko multzoa hartuz gero, 1 eta 2. tauletan daude islaturik 2001eko kontuei buruzko datu nagusiak -egoeraren balantzea eta emaitzen kontua-. Itoiz-Canal de Navarra Fundazioari buruzko daturik ez dago, urte horretan ez baitzuen, artean, jarduerarik eragin. Aurreko fundazioek aurkeztutako urteko informazioa bat dator, orokorrean, irabazi asmorik gabeko entitateetarako kontabilitateko plan orokorraren egokitzapenek eskatzen dutenarekin.

## Partaidetza handieneko fundazioak (2001eko ekitaldia)

## 1. taula.

## EGOERARI BURUZKO BALANTZEA

AKTIBOA	CETENASA	Navarra Calidad	Miguel Servet	Adinez nagusien tutoretza	Conservac Patrimonio Histórico	Guztira
A) FUNDATZAILEAK/KIDEAK ESKATU GABEKO DESPOLTSAPENAK DIRELA-ETA	12.000.000	0	0	0	0	12.000.000
B) IBILGETUA	18.138.889	1.312.374	975.770	0	0	20.427.033
I. Ezarpen gastuak	104.675	81.584	0	0	0	186.259
II. Ibilgetu ez-materialak	0	106.085	0	0	0	106.085
III. Ondare Historikoaren ondasunak	0	0	0	0	0	0
IV. Beste ibilgetu material batzuk	0	1.124.705	975.770	0	0	2.100.475
V. Finantza ibilgetuak	18.034.214	0	0	0	0	18.034.214
C) ZENBAIT EKITALDITAN BANATZEKO DIRUSARRERAK.	0	0	0	0	0	0
D) AKTIBO IBILKORRA	33.752.567	55.959.307	75.526.956	719.810	302.941.655	468.900.295
I. Fundatzaileak, eskatutako despoltsapenak direla-eta	1.500.000	0	0	0	0	1.500.000
II. Izakinak	0	0	0	0	0	0
III. Erabiltzaileak eta bere jardueraren beste zordun batzuk	20.842.150	946.762	6.484.538	0	344.230	28.617.680
IV. Beste zordun batzuk	0	44.503.395	150.074	0	0	44.653.469
V. Aldi baterako finantza-inbertsioak	0	160.000	54.241.390	0	1.485.364	55.886.754
VI. Diruzaintza	11.410.417	10.342.235	14.650.954	719.810	301.112.061	338.235.477
VII. Aldizkotze-doikuntzak	0	6.915	0	0	0	6.915
AKTIBOA, GUZTIRA	63.891.456	57.271.681	76.502.726	719.810	302.941.655	501.327.328
PASIBOA	CETENASA	Navarra Calidad	Miguel Servet	Adinez nagusien tutoretza	Conservac Patrimonio Histórico	Guztira
A) FUNTS BEREKIAK	63.891.456	13.789.756	20.200.923	282.304	299.221.542	397.385.981
I. Fundazioaren zuzkidura/ sozietatearen funtsa	64.049.907	7.927.802	500.000	0	5.000.000	77.477.709
II. Birbalorizazio erreserba	0	0	0	0	0	0
III. Erreserbak	0	5.398.137	0	0	0	5.398.137
IV. Aurreko ekitaldietako soberakinak	0	0	19.814.804	0	0	19.814.804
V. Ekitaldiko soberakinak	-158.451	463.817	-113.881	282.304	294.221.542	294.695.331
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATZEKO DIRUSARRERAK.	0	0	0	0	0	0
C) ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK	0	0	0	0	0	0
D) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	0	0	0	0	0	0
E) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK.	0	43.481.925	56.301.803	437.506	3.720.113	103.941.347
PASIBOA, GUZTIRA	63.891.456	57.271.681	76.502.726	719.810	302.941.655	501.327.328

## Partaidetza handieneko fundazioak (2001eko ekitaldia)

## 2. taula.

## EMAITZEN KONTUA.

GASTUAK	CETENASA	Navarra Calidad	Miguel Servet	Adinez Nagusien tutoretza	Conservac Patrimonio Histórico
Dirutako laguntzak eta beste	0	35.350.981	0	0	3.654.213
Ustiapeneko kontsumoak	0	2.492.110	0	0	0
Langileria-gastuak	0	10.853.764	2.194.221	768.084	0
Ibilgetuko amortizaziorako zuzkidura	29.908	346.415	478.168	0	0
Beste gastu batzuk	224.901	27.768.727	744.723	149.612	522.000
Jardueraren horniduren aldaketa	0	0	0	0	0
<b>I. USTIAPENENKO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>282.304</b>	<b>290.823.787</b>
Finantza gastuak eta antzeko gastuak	998	88.829	0	0	0
Finantza inbertsioen horniduren aldaketa	0	0	0	0	0
Kanbioan izaniko alde negatiboak	0	0	0	0	0
<b>II. FINANTZA-EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>91.138</b>	<b>64.062</b>	<b>2.101.592</b>	<b>0</b>	<b>3.397.755</b>
<b>III. OHIKO JARDUEREN EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>78.850</b>	<b>282.304</b>	<b>294.221.542</b>
<b>IV. OHIZ KANPOKO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>549.663</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>V. ZERGA AURREKO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>463.817</b>	<b>78.850</b>	<b>282.304</b>	<b>294.221.542</b>
<b>VI. EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>463.817</b>	<b>0</b>	<b>282.304</b>	<b>294.221.542</b>
DIRUSARRERAK	CETENASA	Navarra Calidad	Miguel Servet	Adinez Nagusien tutoretza	Conservac Patrimonio Histórico
Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen dirusarrerak	0	22.162.257	1.394.370	0	295.000.000
Salmentak eta merkataritza jardueraren ondoriozko beste dirusarrera arrunt batzuk	0	0	0	0	0
Bestelako diru-sarrerak	0	54.499.832	0	1.200.000	0
<b>I. USTIAPENENKO EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>254.809</b>	<b>149.908</b>	<b>2.022.742</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Finantza-dirusarrerak	92.136	152.891	2.101.592	0	3.397.755
Kanbioan izaniko alde positiboak	0	0	0	0	0
<b>II. FINANTZA-EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>III. OHIKO JARDUEREN EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>163.671</b>	<b>85.846</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
d) Beste ekitaldi batzuetako dirusarrera eta irabaziak	0	549.663	0	0	0
<b>IV. OHIZ KANPOKO EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>V. ZERGA AURREKO EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>163.671</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>VI. EKITALDIKO SOBERAKIN NEGATIBOAK</b>	<b>158.451</b>	<b>0</b>	<b>113.881</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

Ez dute kanpoko auditoretzako txostenik aurkeztu, horietako batek ere ez baititu betetzen fundazioen zerga araubidea eta babes jarduerak arautzen dituen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako baldintzak. Zehazki, 11.4 artikuluk ezartzen du nahitaezkoa dutela auditoretza bi urtez jarraian behintzat honako baldintza hauek betetzen dituzten fundazioak:

a) Aktiboa, guztira, 300 milioi pezetatik gorakoa izatea. (1,5 milioi euro)

b) Dirusarreren urteko kopuru garbia seiehun milioi pezetatik gorakoa izatea (3 milioi euro).

c) Ekitaldian, langileen kopurua batez beste berrogeita hamarretik gorakoa izatea.

Fundazioen bigarren multzoari dagokionez, aurkeztutako kontabilitate informazioa osatu gabe dago, oro har, aurrekontuen likidazioan eta egotzaren balantzean; Cener-Ciemat fundazioa salbuespena da, urteko kontuak kontabilitate planaren egokitzapen horrekin bat aurkezten baititu. Fundazio horien gastuek <sup>(6)</sup> 433 milioi pezeta egin dute eta dirusarrerek 382 milioi pezeta.

Azkenik, ondoko taulan ageri dira fundazioen 2001eko ekitaldian jasotako dirulaguntzak (zenbatekoa pezetatan, milioika).

Fundazioak.	Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak.	Beste erakunde publiko batzuen dirulaguntzak	Dirulaguntzak, guztira
Navarra para la Calidad	58	-	58
Tutela de Adultos	1	-	1
Conservación del Patrimonio Histórico	295	-	295
<b>a. Partaidetza handienekoak, azpimultzoa</b>	<b>354</b>	-	<b>354</b>
Pablo Sarasate	221	-	221
Misterio de Obanos	4	-	4
Julián Gayarre	1	2	3
Arrese	2	-	2
Cener-Ciemat	-	200	200
<b>b. Partaidetza handienekoak ez direnak, azpimultzoa</b>	<b>228</b>	<b>202</b>	<b>430</b>
<b>Fundazioak, guztira</b>	<b>582</b>	<b>202</b>	<b>784</b>

(6) Raíces de Navarra fundazioaren datuak ez dira sartzen, urteko kontuak bidali ez dizkigutelako.



## **NAFARROAKO GOBERNUKO EKONOMIA ETA OGASUN KONTSEILARIAK AURKEZTU- TAKO ALEGAZIOAK**

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Nafarroako 2001eko kontu orokorre buruzko behin-behineko txostenari egindako alegazioak

Nafarroako 2001eko kontu orokorren behin-behineko fiskalizazio txostenaren inguruan honako alegazio hauek aurkeztu nahi ditugu:

**Lehenengoa.** Kontuen zentsura txostenak “Kontratazio Batzordearen aholkularitza eta kontrol jardura txikia” aipatzen du. Beharrezkoa da adieraztea Batzordeak eskatu zaizkion aholkularitza lan guztiak bete dituela eta ez diola uko egin plazaratu zaion ezein gairi egokia edo bidezkoa ez izateagatik.

**Bigarrena.** Txostenaren gomendioa da Nafarroako aurrekontu orokorren eta Nafarroako kontu orokorraren artean korrelazio material eta formala definitzea bi agirietan sartu beharreko ente eta erakundeei dagokienez. Horri buruz esan beharra dago bi agirietan erakunde berberak aipatzen direla eta beraz ez dagoela esaterik korrelazio eza dagoenik. Gure ustez, sektore publikoa osatzen duten entitate guzti-guztiak Ogasun publikoari buruzko Legean ageri diren kontrol ekonomiko eta finantzarioaren printzipioen menpe atxikitzeko kezka isla da gomendio hori, txostenaren testuinguruan; nolahi ere, gomendioak, egina dagoen moduan, kontu orokorraren egitura eta edukia desagokoa dela eta horren eraginez aurrekontuarekin bat ez datorrela iradokitzen du, antza. Ez da hala, ordea: biek ala biek, aurrekontuek zein kontuek, informazio homogeneoa biltzen dute bi agirietan sartu beharreko entitateen inguruan. Besterik da, eta arrazoizkoa, beharbada, kezka izatea aurrekontuen eta kontuen norainokoa zabaldu beharraz, sektore publikoa osatzen doazen entitatei buruzko informazioa biltzeko.

**Hirugarrena.** Aurrekontuko emaitzak orain arte aurreikusi gabeko zenbait alderdi aintzat harturik zehazteko gomendioari dagokionez, berriz, adierazi behar dugu finantziario atxikia duten gastuetan izandako finantziario-desbideraketak kontuan hartzeko modua kontabilitateko informazioaren euskarri den sistema informatiko berriak dituen egiazko aukerek baldintzatzen dutela hein handi batean. Aipatu beharra dago sistema hori SAP produktu estandar bat dela eta haren funtsezko funtzionaltasunen artean ez dagoela, oraingoz, gai mota horren tratamendua; horretarako, beharrezkoa litzateke garapen informatiko gehigarria, sistemaren mantentzea zailagoa izatea eta etekinetan eragin negatiboa ekarriko lukeena. Hori

dela eta, finantziario atxikia duten gastuak badirela ez da aintzat hartuko kontabilitatean harik eta sistemaren oinarriko funtzionaltasunak gai mota hori bere baitan hartzen ez duen arte; espero dezagun hala izateak luze ez jotzea, baina ez da inondik ere hemendik gutxira izanen. Gure ustez, prestazio horiek sartzea aurreratzeak Nafarroako Gobernuari ahalegin ekonomiko handia ekarriko dio, eta eragingarritasun ezaren adibide garbia izanen litzateke, aurrerago erabilgarriak izanen baitira inongo kargu gehigarrik gabe.

**Laugarrena.** Kontu-hartzaitzaren egoeraz esan behar dugu 2001ean lanpostuak sortu zirela, foru dekretu bidez, maiatzaren 3ko 133/1999 Foru Dekretuak —Foru Komunitateko administrazioarentzat eta haren erakunde autonomo administrazioentzat betebehar ekonomikoak sortaraz ditzaketen egintzetan, agirietan eta espedienteetan kontu hartzeko prozedurak arautzen dituenak— ezarritako kontrol moldea erabat garatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eman ahal izateko kontu-hartzaitzari. Halere, aurrekontuak luzatu zirenez, ezinezkoa izan zen lanpostu horiei beharrezkoa zen dirua esleitzea, baina urtean zehar eginiko aurrekontu aldaketen bidez konpondu zen neurri batean. Hurrengo pausua, berehalakoa, lanpostuak langile egokiekin betetzea izanen da eta espero dugu heldu den urtean lanpostu horiek sartzea lan eskaintza publikoan behin betikoz betetzeko.

**Bosgarrena.** Produktibitateko osagarriari dagokionez, txostenaren gomendioa da osagarria loturik egotea urtean urteko helburuak eta emaitzak betetzearekin, aldezturik zehaztutako irizpide batzuekin bat. Adierazi beharra dago hori hala dela, oro har. Dena dela aitortu behar da hainbat kasutan, hala ez denean, arrazoiak dela lanpostuen edukia traba handia dela parametro objektiboak ezartzeko bete beharreko helburuen eskalak ezartzeari begira, eta horrek ekitate falta, dudarik gabe, konpondu beharrekoa, eragiten duela kasu batzuetan. Edozein kasutan, egoera horiek kopuru oso txikian gertatzen dira, eta ez dute aldatzen printzipio orokorra ez eta edukiz gabetzen tresna horren gaitasuna ordainsari aldakorraren osagai den aldetik.

**Seigarrena.** Fiskalizazio txostenean proposatzen da administrazio kontratuen arloko foru arauak osatzea, Nafarroako administrazio publikoari esparru egokia emateko gai horretan. Kontratazioaren arloko foru arauen nondik norakoak presaktaketa lanetan dagoen Bruselako zuzentarauak zehaztuko ditu. Zuzentarau horren norainokoa jakina ez den bitartean ez dirudi egokia egungo arau-esparrua aldatzea.

Zazpigarrena. Kontu-hartze Orokorreko Zerbitzuak ondoren eginiko kontrol txostenetan ez da aipatzen, testuak iradoki dezakeen arren, akats bat gertatu izana kontratazio pleguetan, adjudikazioan lehentasuna ezartzeko langile minusbaliatuen gutxieneko kopurua duten enpresen alde, berdin baloraturiko eskaintzen artean hautatzera-koan. Alderdi hori ganberak aztertutako kontratuen laginetik baizik ez da atera.

Zortzigarrena. Azkenik, txostenak gomendatzen du sistematikoki egiaztatzea kontabilitateko datuak eta tributuen fitxategietan daudenak bat datozela, eta egindako berrikuspenen berri adierazirik uztea. Horri buruz aipatu behar da zerga zordunen datuak erregistratzen dituzten sistemak hauexek direla:

Tributu kudeaketa, tributuen arloko aitorten eta likidazioei buruzko datuak biltzen dituen. Tributu zorra zehazteari dagozkion datuak erregistratzen dira, zehapenak eta errekarquak barne.

Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea (HKL), bertan ageri da zergadun bakoitzaren zorren egoera, adierazirik zorraren eskagarritasuna, gerorazteak, zatikatzeak, agentzia betearazlearen esku gelditzea etab. Tributu likidazio bakoitza hirugarrenen kontabilitate laguntzaileko kargu bati dagokio, eta egindako likidazioen eta HKLko karguen arte-

ko koherentziaren arrastoa jarraitu eta egiaztatu daiteke. HLKko oharrek kasuan kasuko tributu likidazioaren identifikazioa jasotzen dute. Bi sistemen arteko koherentzia astero egiaztatzen da.

Aurrekontuko kontabilitatea, hirugarrenen kontabilitate laguntzailean eginiko kargu guztiak egunez egun jasotzen dituena. Kargatze-prozesuak zordunen kontabilitate laguntzaileko ohar bakoitza "markatzen" du sistema orokorreko oharra erreferentziatzen harturik, eta marka bera duten oharren batura ohar globalaren zenbatekoarekin bat ote datorren egiaztatzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 9an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

#### **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANIKO ERANTZUNA.**

Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Nafarroako 2001eko ekitaldiko kontu orokorren azterketa eta zentsurako behin-behineko txostenari egindako alegazioak jaso eta aztertu ondoren, Kontuen Ganbara honek txostenaren edukia berretsi eta behin betikotzat jotzea erabaki du.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

---

**C saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendaria, 2002-2009

### HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 2002ko azaroaren 12an eginiko bilkuran, Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendaria, 2002-2009 urteetarako, onetsi zuen, erabaki proposamen hauek sarturik:

**1.** Nafarroako Gobernuak, urtero eta bere kabuz, Nafarroako Parlamentuari igorriko dizkio Nafarroako errepideei buruzko plan zuzendaria nola gauzatu eta betetzen den aldian-aldian aztertzeko lanetan egiten dituen txosten eta azterlanen kopiak.

**2.** Honako erabaki proposamen hau onetsi da: Mejora de accesos al valle de Yerri por Grocin a través de la carretera NA-7008.

Actuación prevista.

Ampliación y mejora de la red viaria.

N.º actuación: 110.

Carretera nueva NA-7008.

Tramo. Mejora de accesos al valle de Yerri por Grocin a través NA-7008.

Tipo 3.

Presupuesto (meuros): 2,22.

Longitud/actuación (km.): 6,00.

Coste actuación (meuros/km): 0,37.

Año de ejecución: 2005-2006.

**3.** Honako erabaki proposamen hau onetsi da: Ensanche y mejora de la carretera NA-7230 entre Viana y Aras.

Actuación prevista:

Ampliación y mejora de la red viaria.

N.º de actuación: nueva.

Tipo 3.

Carretera nueva NA-7230.

Tramo: ensanche y mejora de la carretera NA-7230 entre Viana y Aras.

Presupuesto (meuros): 3,12.

Longitud/actuación (km): 8.

Coste actuación: (meuros/km): 0,39.

Total coste: 3,12 meuros.

Año de ejecución: 2005-2006.

**4.** Beste jarduketa bat gehitu da. Tutera-Medinaceli autobia. Proposamenak:

1. Instar al Gobierno de España a impulsar de manera decidida la construcción de la vía Navarra-Medinaceli, priorizando las actuaciones relacionadas con el tramo Medinaceli-Tudela, que debe estar finalizado para su conexión con el tramo Madrid-Medinaceli.

2. Instar al Gobierno de Navarra a establecer un convenio con el Estado para abordar la propuesta anterior, así como el conjunto de la colaboración entre ambas Administraciones en materia de infraestructuras viarias.

3. Estudiar los posibles trazados por Navarra, incluyendo la posible potenciación del eje Tudela-Tarazona.

**5.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Variante Viana-Aras-Aguilar.

Construcción de una variante Viana-Aras-Aguilar que sustituya a la actual carretera NA-7230.

**6.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Variante de Cortes.

Construcción de una variante en Cortes para eliminar el tráfico por el casco urbano, que sustituiría a la carretera que une las poblaciones de Buñuel-Cortes-Novillas. La construcción de esta variante, de aproximadamente un kilómetro, se

realizaría por el denominado “Camino de la máquina”.

**7.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Variante de Buñuel-Cortes-Mallén.

Construcción de una variante que eliminaría el tráfico de la carretera que pasa por el casco urbano y que une las poblaciones de Buñuel-Cortes-Mallén. Esta variante de aproximadamente 2 kilómetros se construiría por el denominado “Camino de la máquina-terrenos agrícolas” y llegaría al puente sobre la línea del ferrocarril.

**8.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Circunvalación en Corella.

Unión de la nacional NA-161 con la NA-113 a partir del km. 6 de la NA-161. La unión de esta carretera debe realizarse por el denominado “Camino del Partidero”, siguiendo por el término de Guarre, cruzando la carretera de Alfaro y el río Alhama por un nuevo puente a construir, para salir a enlazar con la N-113 (Castejón-Cintruénigo).

**9.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Circunvalación en Tudela.

Afrontar los estudios necesarios para la futura circunvalación norte perimetrando el casco antiguo de Tudela.

**10.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Variante de Cabanillas.

Construcción de una variante en la Carretera NA-126.

**11.** Beste jarduketa bat gehitu da.

Estudio para la construcción de una futura Ronda Este.

Realizar estudios para abordar la construcción de una nueva Ronda, que despeje de tránsito pesado la actual Ronda Este.

**12.** Beste ildo estrategiko bat gehitu da:

Compatibilizar la necesaria mejora de la red vial, con el respeto y protección del Medio Ambiente y el Patrimonio Natural de Navarra. Para ello, en la medida de lo posible y técnicamente viable, a la hora de construir nuevas Vías de Gran Capacidad, se procurará utilizar la mayor parte posible del trazado de carretera existente.

**13.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NA-170 errepidea, Leitzatik Doneztebera bitarte, hobetzeko lanen exekuzioa 2004. urtera aurrera ditzan.

**14.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2004. urtera aurrera dezan NA-4040 errepidea Doneztebetik Saldiasera bitarte hobetzeko lanen exekuzioa .

**15.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NA-4020 errepidea hobetzera eta Igantzin dagoen bidegurutzean aurreikusiriko lanak lehenbailehen egin ditzan.

**16.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NA-121 errepidean 2004. urtean bete ditzan saihezbidea egin eta Los Abetosko gurutzagunea hobetzeko lanak.

**17.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-135 errepidea, Luzaiderraino, osorik hobetzera, proiektu global baten bidez.

**18.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irurita eta Elizondoko saihezbideen exekuzioari (N-121-B) ekin diezaion 2004. urtean.

**19.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, gehiago luzatu gabe, negoziatzera Enderlatsa-Behobia tartearen konponbidea, hobekuntza amaituta egon dadin 2007. urtean.

**20.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121 errepideko Igantzi eta Bera arteko tartearen exekuzioari 2004. urtean ekin diezaion, 2007. urterako buruturik egon dadin, Bera-Enderlatsa tarterako aurreikusirik dagoen moduan.

**21.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arrisku gune guztiak desagerraraz ditzan lehenbailehen, lehentasunak istripu kopuruan oinarrituz ezarri ondotik.

**22.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar den hitzarmena izenpetzera azkar bete daitezzen Medinaceli-Soria-Tutera bide handiaren eta Iruña-Jaka autobiarene lanak, bai eta Iruña-Lizarraldea-logroño autobiarene eta Errioxako hiriburuaren arteko lotura ere konpon dadin.

**23.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako gobernua premiatzen du lehenbailehen azter dezan Sakanako autobiarene eta Iparraldeko autobiarene arteko lotunea aldatzeko aukera.

**24.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NA-7561 errepidea –Albiasuko errepidea– lehenbailehen berritzera.

**25.** Iruña-Lizarraldea-Logroño errepidea, Vianako lotunetik aitzina, N-232 errepidearekin lotu behar-

ko da eta A-68 autobidearekin Logroño inguruetan, Ebro ibaia behin zeharkaturik. Horretarako, Sustapen Ministerioarekin koordinatuko da jarduketa, eta obrak egiteko lankidetzaz hitzarmen bat izenpetuko.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa 2003ko urtarrilaren 17an

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua Biltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela xedatzen du.

Hori horrela, ERABAKITZEN DUGU:

17an duen plantilla organikoa onestea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Mur-guialday

a) Funtzionarioak:

	Zenbat	Maila	Izendapen askea	Esklusi-bitatea	Bateraezintasuna	Lanpostua	Mailako osagarria	Berriazko osagarria
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>								
Legelari nagusia	1	A	X	55		75		16
<b>Mahaiko eta Eledunen</b>								
<b>Batzarreko idazkaria</b>								
Administrazioko burua	1	C	X			41,68	12	
Administraria	1	C				31,68	12	
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>								
Legelariak	4	A		55		50		
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>								
Administrazioko teknikari burua	1	B		55		30		
Teknikari diplomatua (**)	1	B		55		5		
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	20		
Informatikako teknikaria	1	A			35	20		
Informatikako teknikaria	1	B			35	20		
Administrariak (*)	5	C				31,68	12	
Ofizial teknikaria (**)	1	C		55		6	12	
<b>Gelazain nagusia</b>								
Gelazain nagusia	1	D				32	15	
Gelazainak	10	D				22	15	
<b>PRENTSA, ARGITALPEN</b>								
<b>ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>								
Prentsako burua	1	A		55		50		
Itzultzaileak	5	A		55		4		
Protokoloko teknikaria	1	B			35	20		
Administraria (*)	1	C				31,68	12	
Transkriptoreak (*)	6	C				31,68	12	
<b>Protokoloko Burutza</b>								
Administrazioko burua	1	C				41,68	12	

	Zenbat	Maila	Izendapen askea	Esklusi-bitatea	Bateraezintasuna	Lanpostua	Mailako osagarria	Berariazko osagarria
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>								
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		30		
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	20		
Administraria (*)	2	C				31,68	12	
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMI GAJETARAKO ZERBITZUA</b>								
Kontu-hartzaitzako burua	1	B		55		30		15
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	20		
Administrariak	2	C				31,68	12	

## b) Aldi baterako langileak

Kopurua	Lanpostua	Izendapen askea
1	Lehendakartzako kabinete burua	X
1	Lehendakartzako idazkaria	X
1	Mahaiko kideen idazkaria	X
9	Parlamentuko taldeen laguntzaileak	X

(\*) Administrari 1 euskarazko tituluarekin  
 (\*) Transkriptore 1 euskarazko tituluarekin  
 (\*) Administrari 1 euskarazko tituluarekin  
 (\*\*) Amaitzekoak.

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2002ko abenduaren 31n

Nafarroako Parlamentuko Mahaia, 2003ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuan 2002ko abenduaren 31n lanean ari ziren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>				
DÍEZ LAGO, P. <b>Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaria</b>	A	5	Legelari nagusia	Jardunean
ALFARO ERVITI, C.	C	6	Administrazioko burua	Jardunean
LASECA ESCUER, J.R.	C	4	Administraria	Jardunean
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>				
BERMEJO GARDE, M.	A	5	Legelaria	Zerb. bereziak
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	4	Legelaria	Zerb. bereziak
ESPARZA OROZ, M.	A	5	Legelaria	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	A		Legelaria	

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>				
CERRO PAÚL, F. J. DEL	B	6	Zerb. Orokorretako burua	Jardunean
LARRAÑETA LIZARRONDO, M. V.	B	7	Teknikari diplomatua	Jardunean
LOYOLA ERASO, P.	A	4	Informatikako teknikaria	Jardunean
ARANAZ JIMÉNEZ, E.	B	2	Informatikako teknikaria	Jardunean
ARDAIZ EGÚÉS, A.	C	4	Administraria	Zerb. bereziak
BEAR SANZ, C.	C	4	Administraria	Jardunean
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	6	Administraria	Jardunean
MIGUÉLIZ GARCÉS, I.	C	3	Administraria *	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	
EQUIZA MAQUIRRIÁIN, J. M.	C	4	Ofizial teknikaria	Jardunean
<b>Gelazain nagusia</b>				
ANSORENA URRIZA, A.	D	4	Gelazain nagusia	Jardunean
ADOT LOPERENA, M.A.	D	4	Gelazaina	Jardunean
ARIZCUREN REY, M. Á.	D	4	Gelazaina	Jardunean
CARLOS RAMÍREZ, J. M.	D	4	Gelazaina	Jardunean
FADRIQUE GARDE, I.	D	5	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, F.	D	3	Gelazaina	Jardunean
MARTÍNEZ ORDUÑA, M. J.	D	3	Gelazaina	Zerb. bereziak
MONEO MARTÍNEZ, M.I.	D	3	Gelazaina	Jardunean
TORRES IBARROLA, J. M.	D	4	Gelazaina	Jardunean
URMENETA MARÍN, O.	D	4	Gelazaina	Jardunean
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	4	Gelazaina	Jardunean
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO</b>				
GIL MARTÍNEZ, C. J.	A	4	Prentsako burua	Jardunean
ARANA BAREÑO, A.	A	1	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, X.	A	2	Itzultzailea	Jardunean
ETXEBARRIA ARIZNABARRETA, M.	A	3	Itzultzailea	Jardunean
IRIARTE CILVETI, M.	A	2	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, A.	A	2	Itzultzailea	Jardunean
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, B.	C	4	Administraria *	Jardunean
ARANAZ MARTÍ, C.	C	3	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPIÓN, A. I.	C	5	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, F.	C	4	Transkriptorea	Jardunean
SÁENZ GARCÍA, M. C.	C	4	Transkriptorea	Zerb. bereziak
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	3	Transkriptorea *	Jardunean
SEVINÉ RUIZ, M.	C	1	Transkriptorea	Jardunean
<b>Protokoloko Burutza</b>				
HUALDE ARBIZU, N.	C	7	Administrazioko burua	Jardunean
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J.	A	5	Artxibo eta Liburutegiko burua	Jardunean
ITURRI VILLANUEVA, A.	B	2	Liburutegiko lag. eta dokumentalista	Jardunean
ALEGRÍA GOÑI, M.C.	B	1	Liburutegiko lag. eta dokumentalista	Jardunean
MITXELENA ENBIL, I. A.	C	3	Administraria *	Jardunean
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERBITZUA</b>				
ZULET RECALDE, F.	B	4	Kontu-hartzaitzako burua	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
FERNÁNDEZ GELOS, M. V.	C	5	Administraria	Jardunean
PÉREZ DE RADA ARÍSTEGUI, M. E.	C	6	Administraria	Jardunean

(\*) Lanpostua euskarazko tituluarekin



## Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren, hautetsien eta haren zerbitzuko behin-behineko langileen lansari

2003ko urtarrilaren 17an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Ikusirik Kontuhartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tako Zerbitzuko buruak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren, hautetsien eta haren zerbitzuko behin-behineko langileen lansariei buruz emaniko txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15 eta 37. artikuluetan xedatuarekin bat, hauxe erabaki da:

1. Lehendakariaren 2003. urteko lansari gordina 56.504 eurokoa izanen dela ezartzea.

2. Hautetsien (eledun titularra edo eledun laguntzailea) 2003. urteko lansari gordina 44.422 eurokoa izanen dela ezartzea.

3. Lehendakaritzako kabinete buruaren 2003. urteko lansari gordina 46.200 eurokoa izanen dela ezartzea.

4. Lehendakaritzako idazkariaren 2003. urteko lansari gordina 27.874 eurokoa izanen dela ezartzea.

5. Mahaiko kideen idazkariaren 2003. urteko lansari gordina 22.414 eurokoa izanen dela ezartzea.

6. Parlamentuko taldeen laguntzaileen 2003. urteko lansari gordina 22.414 eurokoa izanen dela ezartzea.

7. Agintzea ordainketa bakarra, kontsolidatuz, egin dadin; hori kalkulatzeko, 2002. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri, eta zenbatekoa hau izanen da: Nafarroan 2002. urtean egiazki izaniko Kontsumo Prezioen Indizearen eta 2002. urterako orokorki onetsitako behin-behineko igoseraren –ehunekoaren 2a, hain zuzen– arteko aldea zenbatekoa den, horren arabera.

8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués.

## Foru parlamentariak eta Parlamentuko taldeek 2003ko ekitaldian jasoko dituzten zenbatekoak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun eta gero, ondorengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuhartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tako Zerbitzuko buruak idatzitako txostena eta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15, 35 eta 37. artikuluetan xedatuarekin bat, hauxe erabaki da:

1. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, foru parlamentariak eta Parlamentuko taldeek jasoko dituzten zenbatekoak onestea; hauxek, hain zuzen:

A) Foru parlamentarien ordainsariak:

– Dietak: bilkura batera etortzeagatik 100,20 euro jasoko dituzte foru parlamentariak, Iruñean bizi badira edo Iruñetik euren bizilekura gehienez ere 25 kilometro badaude.

– Dietak: bilkura batera etortzeagatik 118,81 euro jasoko dituzte foru parlamentariak, Iruñetik euren bizilekura 25 kilometro baino gehiago badaude.

– Kilometrajea: 0,26 euro kilometroko.

B) Parlamentuko taldeen ordainsariak:

a) Dirulaguntza finkoa: 5.744,00 euro hileko, talde bakoitzarentzat.

b) Parlamentari kopuruaren arabera dirulaguntza: ondorengo zenbatekoen batura izanen da:

– Funtzionamendu gastuak: 1.037,00 euro hileko, parlamentari bakoitzeko.

– Antolamendu gastuak: 793,00 euro hileko, parlamentari bakoitzeko.

– Langileen eta jardueren gastuak: 2.962,00 euro hileko, bost parlamentario, edo zenbateko horren zatikiko.


**2.** Ezartzea dieta bakoitzean 67 euro izanen direla gastuak ordaintzeko, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren

30eko 22/1998 Foru Legeko 14. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

